

Gaueko gezurrak: Itzulpena lantegi

JOSU ZABALETA

Gesualdo Bufalinoren *Le menzogne della notte* eleberraren itzulpena dela-eta, eleberrori hori itzultzea izan zen esperentziaz hitz egiteko eskatu zidan ItzulBaitak. Aukera bat baino gehiago nuen lanari heltzeko. Bat, klasikoa, testuari lotua: jatorrizko testuaren eta testu itzuliaren arteko alderaketa bat eginez, itzulpenaren kritikari batek egingo lukeenaren modukoa nolabait; arazo- eta irtenbide-sailkapen gisako bat, testuaren maila desberdinen arabera antolatua; “zer zailtasun izan duzu eleberrori hori itzultzen?” galdetu izan balitzait bezala-edo.

Horrela adierazita barregarri samarra badirudi ere, era horretako ekarpenak interesgarriak izaten dira itzultzailearentzat, beti ematen dute zer pentsatua eta zer ikasia. Beste itzultzaileek beren itzulpenak egiteko erabiltzen dituzten irizpideak, aurkitzen dituzten oztupoak, zailtasunak, gainditu behar dituzten nekeak eta aurkitzen dituzten irtenbideak eta saihasbideak, interesgarriak ez ezik, lagungarriak ere izaten dira. Azken finean, gure artean, euskal itzultzai-

leen artean, era askotako testuak eta hizkuntza desberdinetatik itzultzen jardun arren, badugu denok berdintzen gaituen, leku berean jartzen gaituen faktore nagusi bat: euskara. Ez dut esan nahi euskara hizkuntza gisa, bere historiaren egoera jakin batean dagoen hizkuntza gisa baizik: normalizazio-bidean baina normalizatu gabe, baliabide gutxirekin, erabiltzen den gizartean bertan ere gutxi erabiltzen den eta euskararen gaurko egoera ezaugarritzen duten beste hainbat faktorek berebiziko eragina duten hizkuntza bat, alegia. Faktore horiek guztiak hartu behar ditu kontuan itzultzaileak, eta itzultzen ari den denbora guztian egin behar ditu horien araberrako hautuak.

Itzulpenak, eta are gehiago literatura-itzulpenak, oso bizkor aldatuz doan, modek eragin handia duten eta eredu fidagarri askorik ez dagoen hizkuntza batera egiten dira gure artean. Horregatik, itzultzaile batentzat interesgarria da beti beste itzultzaileek zer iritziren arabera zer hautu egiten dituzten ahalik eta xehekien jakitea. Nire

kasuan, etengabeko jarduna izaten da hau, lankideen artean etengabe darabilgun gaia, han eta hemen agertuz doazkigun itzulpen-arazoez hitz egiten dugunean mila modutan zehaztuz joaten garena, eta horrexek laguntzen digu, neurri handi batean, gure jarraibideak nondik bideratu erabakitzen.

Eskertzekoak iruditzen zaizkit era hone-tako ekarpenak. Eta zentzu berean eskertzekoak iruditzen zaizkit elkarri egiten dizkiogun zuzenketak eta oharrak, gutxiengutxienez, testu beretik egin daitezkeen itzulpen desberdinen eta, horrenbestez, itzulpen-jardunbide desberdinen kontrastea bistaratzeko balio dutelako. Itzultzea den lanbide bakarti honetan —luma pape-rean edo behatza teklaren gainean jartzen denean, bakarrik aurkitzen da bat beti— aise gera daiteke itzultzailea kontrasterik gabe, eta hortxe du itzulpengintzak arriskurik handienetako bat, seguru asko: nork bere jardunbidea besteenekin ez alderatzean; ez ikustean mila burubide izan daitezkeela eta direla begien aurrean testu bat duzula beste hizkuntza batean haren baliokide bat idatzi behar duzunean.

Horregatik iruditzen zait sana eta interresgarria norbere itzulpenezko burubideak komunikatzea eta kontatzea. Izatez, zuzenketaren antz handia du, gainera, komunikazio horrek. Hain zuzen ere, lehen esan ditudan itzulpenezko arazo eta zalantzak adierazteak, egindako aukerak arrazoitzea esan nahi baitu, eta aukera bat egiteak beste aukera bat 2 arbuiatzea esan nahi du, aldi berean, hau da, arrazoi batzuk izatea aukera baten alde eta bestearen kontra. Zuzenketak egiten duen gauza bera.

Itzulpena lantegi

Oraingo honetan, ordea, neure esperientziaz hitz egiteko eskatzen zaidalarik, nahiago izan dut beste bide bat hartu, beste aztergai bat eskaini: itzulpen-prozesua bera, itzulpen-lana antolatzeke modua: zer baliabide erabiltzen dudana, nola erabiltzen ditudan baliabide horiek eta zertan laguntzen didaten. Edo galdera moduan adierazita: aldaketarik izan da — funtsezko aldaketarik behintzat— itzulpen-prozesuan azkeneko urte hauetan?

Nire esperientzia eskatu zait, eta nire esperientzia azalduko dut, itzulpeneari hartutako erabakien arrazoiak azaldu behar-ko banitu ere nire esperientzia azalduko nukeen bezala.

Ni arkatzez hasi nintzen itzultzen. Arkatzez, eta paperean ia eskuineko aldearen erdia hartzen zuen bazter zuri bat utziz, zuzenketetarako lekua izan zedin. Eta mahai gainean atril handi bat, geroz eta handiagoa, hiztegi berriak argitaratu ahala, haientzat lekua izan zedin; Plazido Mujikarena erdi-erdian, itzulpen gehienak era batera edo bestera gaztelaniatik igarotzen zirelako. Leizarragak ere halakoxe zerbait egingo zuen, Plazido Mujikarik gabe.

Gauza asko aldatu dira harrezkero. Funtsezkoa, itzulpen-unea bera, ez zen aldatuko. Zalantzaz diot, zeren itzulpen-unea bera —garunean, nonbait, xede-hizkuntzako testua, testu zatia, sortzen den misteriozko une hori— nola eratzen den, zerk baldintzatzen duen zehazki, eta zerk eragiten duen, ez baitaki inork. Baina itzulpena lehendabiziz eta, gero, haren zuzenketa posible egiten duten faktoreak ezagunagoak dira: itzul-

pena —pasarte ñimiñoenaren itzulpena— egin baino lehen metatzen den irizpide pila eta, haren ondorenean, jatorrizko testuaren ulermenaren eta itzulitako testuaren ulermenaren konparazioan oinarrituta egiten diren eta zuzenketetarako baliatzen diren irizpide pilak, horiek bai, ezagunagoak dira, eta ez dira askorik aldatu, seguru asko, harrezkero. Itzulpen-jardunaren mamia, muina, ez dut uste aldatu denik. Nire lankide batek esaten duen bezala: “Niretzat itzulpena oso gauza soila da beti: jatorrizko testua, zu eta paper zuria”. Hori ez da aldatu. Itzultzaileak jatorrizko testua irakurriz hartaz egiten duen interpretazioan oinarrituta, itzulpenaren erabiltzaileak kontuan hartuta, eta haien hizkuntzan duen gaitasunaz baliatuta, bere iritzian jatorrizkoaren ahalik eta baliokidea izango den testu bat osatzen du.

Gainerakoan, ordea, aldaketa handiak gertatu direla ezin da ukatu.

Itzultzaileak bere lana egiteko gaur egun eskura dituen baliabideak ezin konpara daitezke orain dela urte gutxi zituenekin; antzik ere ez dute. Ez naiz ari itzulpen automatikoez eta halakoez; literatura-itzulpenaz baizik. Literatura-itzulpenean ere, muin-muineko jarduera aldatu ez bada ere, arras aldatu dira gainerako gauzak. Baliabide informatikoez aldatu dute, batez ere, egoera.

Oso kontuan hartu beharko litzateke hori. Zertan eta zenbateraino aldatu dira itzulpen-prozedurak? Ez nago seguru. Gai honi buruz hitz egiten denean, badirudi bi muturren artean mugitzen direla jarrerak: batzuen iritzian, badirudi itzulpena goitik behera, erabat aldatu duela informatikak, mirariak espero dira informatikatik; beste batzuen iritzian, itzulpeneko ohiko proze-

durak bizkortu baizik ez ditu egin. Itzulpen erdiautomatiko-edo dei genezakeena, itzulpen automatikoaren eta memorieta oinarritutako itzulpenaren arteko konbinazio batetik abiatuta garatzen ari diren tresna berriak datozenean, baliteke arrazoi gehiago izatea itzulpenaren munduan gauzak aldatu direla esateko. Baina, orduan ere, itzulpenaren muinaren muina ez da aldatuko, “jatorrizko testua, paper zuria (edo dagoeneko zirriborratua) eta ni” hor egongo gara, lehengo aukeraren zuzenketak egiteko besterik ez bada ere.

Muinak muin eta mamiak mami, ezin uka daiteke itzulpen-prozesuaren inguruan gauza asko aldatu direla, baina susmoa dut aldaketa horiek gertatu ez balitz bezala jarraitzen dugula oraindik ere itzulpenaz hitz egiten. Itzulpenean hartutako erabakiei begiratzen diegu; jatorrizko testuaren eta testu itzuliaren alderaketan zentratzen gara gehienbat. Ez nago seguru, baina itzultzaile-ikasketak ere, neurri handi batean behintzat, gai horietan zentratuta daudela iruditzen zait. Ez dut ukatuko puska handi batean hala izan behar ez duenik, jatorrizko testuaren eta testu itzuliaren arteko egokitasunari begiratu behar baitzaio batez ere, azken finean.

Baina testu itzulia produzitzeko prozesuari gehixeago begiratu beharko litzaiokeela iruditzen zait. Merezi du. Azken-azkenean, lantegi bati dagokionez, handik ateratzen den produktua epaitzen den bezala, baina haren ekoizpenean lantegiaren tresneriak eta lantegiaren antolamenduak berebiziko eragina duten bezala, halaxe gertatu behar luke itzulpenean ere: itzulpen-lantegia zaindu beharko litzateke, eta hartan inbertitu.

Konparazioa jarraitzea zilegi badut, esan-gu nuke lantegira sartu zen lehengai-puska produktua zein puskatan dagoen bilatzen aritzen garela sarritxo, eraldaketa-prozesuari eta horretarako baliabideei behar adina begiratu gabe.

Horrexegatik, itzulpena lantegi gisa geroz eta gehiago ikusi beharko genukeela iruditzen zaidalako, azaldu nahi dut hemen nire itzulpen-lantegia, nire itzulpen-prozesua edo azkenaldi honetan egin ditudan zenbait literatura-itzulpenetan erabili dudana. Beste askok bezala, ahal dudana egiten dut nik ere, baina aitortu behar dut tresnaz hornitzen eta tresnak hobetzen ahalegintxo bat egin dudala, eta horixe nahi dut eskaini, nahi duenak hobekuntzak egiteko erabil dezan.

Ez naiz mugatuko, beraz, Gesualdo Bufalinoren *Le menzogne della notte* eleberriaren itzulpena, azalpenak emateko adibide gisa gehienbat itzulpen hori hartuko dudan arren. Itzulpen bakoitzak bere baldintzak ditu; ez dago denentzat balio duen lan-antolamendu berdin bat, eta baliabideak ere itzulpen bakoitzera egokitu behar dira. Horregatik, beste itzulpen batzuk ere aipatuko ditut, hasi Guy de Maupassanten *Fantasiako ipuinak*-etik eta Bufalinorenaren ondoren egin dudana Machado de Assisen *On Casmurro* eleberriaren itzulpenaraino. Literatura-lan bat itzultzeko hartzen dudanetik itzulpena bukatzen dudanerainokoak deskribatzen ahaleginduko naiz, horretan erabiltzen ditudan baliabiderik hedatuena edo ezagunena bazterturik, noski (ez du zentzurik Xuxen erabiltzen dudala-eta hari buruz jarduteak, adibidez).

a. Autoreari eta obrari buruzko informazioa bilatzea

Lehenengo egitekoa itzuli beharreko testua berriro irakurtzea izaten da, bistan denez, askotan lehendik irakurria izaten baita. Beste zenbaitetan ez, itzulpena enkarguz egina denean, gehienbat. Horrekin batera, ordea, itzuli beharreko testua egoki interpretatzen lagunduko diguten beste irakurketa batzuk nahitaezkoak izaten dira.

Lehenik eta behin testuaren egilearen beste testu batzuk. Idazle baten obra baten hurbileneko testuingurua idazle haren beste obrak dira. Haiek ematen dute, maizenik, obra osorik eta obraren pasarte asko eta asko interpretatzeko giltza. *Le menzogne della notte* ez da berdin interpretatzen G. Bufalinoren beste obrak irakurri gabe. Eleberri autonomoa da, eta zilegi da haren beste lanen erreferentziarik gabe interpretatzea, eta zalantzarik ez dago, orobat, irakurle bakoitzak bere gisara interpretatuko duela, bere oroimenaren arabera, bere konnotazioak ezarriko dizkiola, ez dituela jarriko Bufalinok jarri nahi izan zituen guztiak, eta zilegi dela hori ere. Baina Bufalinoren beraren irakurketara hurbildu nahi badugu, haren lanak irakurri beharko ditugu; haietan aurkituko ditugu Bufalinoren gai nagusiak, haren obran etengabe errepikatzen diren gaiak eta, itzultzaile garen aldetik gehien interesatzen zaiguna, haren idaz-moldeak.

Horrez gainera, mesedegarri izango da jatorrizko testuaren egilearen mundua, haren irakurketak, haren erreferentzia-mundua ezagutzea. Horretan lagungarriak izan dira itzuli behar den obrari edo haren idazleari buruzko kritika-lanak ere.

Le menzogne della notte eleberriaren itzulpenerako, adibidez, lagungarriak izan nituen Ella Imbalzanoren *Di cenere e d'oro*. *Gesualdo Bufalino* eta Francesca Caputo eta besteren *Gesualdo Bufalino e la scrittura felice* liburuak, eta batez ere itzulpena egiteko erabili nuen jatorrizko liburuan (Tascabili Bompiani, Milano, 2001) Nunzio Zagok idatzitako sarrera eta testuari egindako oharrrak. Horiek izan ez banitu ez nituzkeen atzemango Bufalinok italiar literaturako beste autore batzuen idazkietatik eta operetatik ia hitzez hitz hartzen dituen pasarteak, adibidez. Bufalino oso zalea zen horrela jokatzera; badakit zehar-aipamen horiek atzeman ezinezkoak direla itzulpenean, aipamen horien jatorrizko testuak euskaraz ez daudelako, hasteko; zalantza handiak ditut italiar irakurle arruntak ere atzematen ote dituen (horrexegatik esan ditudan ohar horiek nik erabili dudan argitalpenean; eta Bufalinoren testuen joko-komplexutasuna haren kritikari guztiek aipatzen dute). Baina Bufalinok berak oharrik gabe argitaratu zuen liburua, oharrik gabe ere interpretatu daitekeelako, eta horrek egiten du zilegi itzulpenean ere oharrik ez jartzea.

Machado de Assisen *On Casmurro* itzultzeko, adibidez, Helen Caldwell-en *The Brazilian Othello of Machado de Assis: A Study of Dom Casmurro* eta Richard Grahamen *Machado de Assis: Reflections on a Brazilian Master Writer* liburuak eta Interneten argitaratuta dauden hainbat lan irakurri ditut.

Aipatzen ari naizen lan eta irakurgai hauek lagungarriak izanagatik, hala ere, ikuspegi orokor samar batetik eginak izan ohi dira, ikuspegi filologiko batetik eginak, kritika-lan gehienak bezala, eta horixe

eskaintzen diote itzultzaileari, bere lanerako, testuaren ulerpenerako ikuspegi zabal bat. Kritika gisa ongi egon daitezke, eta batzuk oso ongi daude, baina ez dira itzultzaileak gehien behar dituenak. Itzulpenaren eta filologiaren edo literatura-kritikaren ikuspegiak ez dira ezinbestez ezkontzen, gauza desberdinak dira.

Italiar literaturaren itzulpenak baditu, hala ere, beti kontuan hartu behar diren gai batzuk. Bat, itzultzaileari lan handia ematen diona: italiar dialektoen erabilera. Itzultzaile batek gaur egungo italiar literaturako lan bat itzuli behar duenean, nahitaez erantzun behar dio galdera honi: nola jokutzen du autore honek dialektoei dagokionez? Italiar badu, izan ere, gai honi dagokionez, beste literatura batzuetatik aise ulertzen ez den ezaugarri bat. Italiararen batasuna, besterik badirudi ere, ez dago burututa; bada eredu bat guztiz zabaltzen ari dena, batez ere administrazioan eta komunikabide nagusietan (telebistetan batez ere) erabiltzen dena, eta eguneroko erabileran ere zabaltzen ari dena. Baina eredu hori ez dago Frantziako edo Espainiako Akademiekin aldera daitekeen erakunde batek berretsirik.

Gaur egun bertan ere eztabaida handiak izaten dira italiar idazleen artean beren lanetako hizkuntza-ereduari buruz, italiar "batuari" buruz batez ere. Nahiko jarra definituak eta aski elkarren kontrakoak daude gai honi buruz. Eztabaida sonatu bat 1950-60 arteko "la nuova questione della lingua" inguruan sortu zena izan zen, Pasolinik, Italo Calvinok, Moraviak, Gaddak eta beste askok parte hartu zutena. Baina oraindik erabaki gabe dagoen gaia da.

Joera desberdinak daude: autore bakoitzak bere irizpideen arabera erabiltzen ditu dialektoak. Ez dira gauza bera Pasoliniren joera (Pasolinik dialekto asko landu zituen, eta ongi definitutako jarrera politikoa zuen dialektoei buruz), Carlo Emilio Gaddarena (*Quer pasticciaccio brutto de via Merulana*-n darabilen “pasticcio”-a) edo, gaur egun, Andrea Camilleri batena, adibidez.

Siziliar idazleek are arrozoi indartsuagoak dituzte gai honetan ere berezi izateko, siziliar dialektoa italiar “estandarren” aski desberdina delako, eta tradizio idatzi bat baduelako, gainera. Siziliar idazle askok siziliar dialektoa eta italiar estandarra, biak erabili dituzte beren idazlanetan (Verga, Capuana, Pirandello eta abar).

Egoera horrek eta joera horiek neke handia ematen diote itzultzaileari, eta berebiziko jakintza eskatzen diote italiar dialektoez, dialektoak estandarrekin nahasita datozenean, batez ere. Azkenaldi honetan lan interesgarriak ari dira argitaratzen gai honi buruz, itzultzailearentzat argigarriak. Batzuk aipatzeagatik: Annunziata Falco: *I riflessi letterari dell’Unità d’Italia nella narrativa siciliana*; Giovanni Caprara: *Variación lingüística y traducción: Andrea Camilleri en castellano*, Málaga, 2007; Caterina Briguglia: *El reto de la traducción: la transferencia del puzzle lingüístico de Andrea Camilleri al castellano y al catalán*. Un. Pompeu Fabra, 2006; Caterina Briguglia: *La traducción de la variación lingüística en el catalán literario contemporáneo. Las traducciones de Pasolini, Gadda y Camilleri*. Un. Pompeu Fabra, 2007.

Nola moldatu zer den dialektoz idatzia eta estandarrez zer dagoen argitzeko? Azke-

nean A. Camillerik berak, umorez, telebistako solas batean egindako komentario batek eman zidan irtenbidea. Idazteko makinaz idazten omen zituen bere lanak, baina argitaratzeko zuzenketak ezin bukatuzkoak izaten omen ziren. Ordenagailu bat oparitu omen zioten, baina ordenagailuak ere eragozpenak jartzen omen zizkion: dena gorritz azpimarratzen omen zion, harik eta “bere” informatika-adituak (nork “bere” abokatua edo psikiatra izaten duen bezala, nork “bere” informatika-aditua behar baitu) programari zerbait aldatu eta harrezkero ezer gorritz azpimarratzen ez dion arte. Ortografia-zuzentzailea, noski. Itzulpeneko jatorrizko testua italierazko testu bezala definitzen bada, eta idatzi ahala zuzentzeko agintzen bazaio, italiera estandarra ez den guztia gorritz azpimarratzen du, eta hala jakin daiteke, gutxi gorabehera, zer den estandarra eta zer ez.

Nik metodo hori erabili nuen. Erraza eta lagungarria.

b. Corpusak

Ahal dudan guztietan, itzuli behar dudan testuaren egile beraren ahal ditudan testu guztiez corpus bat osatu ohi dut, itzulpeneko kontsultagai gisa erabiltzeko. Hiztegiek beren mugak dituzte, alde batetik, eta idazleak nahitaez errepikatu egiten ditu bere baliabideak (bere hiztegia, eta abar). Azkenean, idazle baten testuen corpusean haren hizkuntza-erabilera agertzen da. Corpus hori corpus-ustiaketarako baliabide egoki batez erabiliz gero, oso tresna baliagarria bihurtzen da; corpus bateko konkordantziak (hitzak beren testuinguruetan) corpus hartako hiztegia dira, ia-ia. Azken finean

itzulpen-memoriez baliatzen diren baliabide informatikoez ere horixe bera egiten dute: itzulpenaren testu-corpus bat sortu, itzulpena egin ahala, unean uneko azterketak egin ahal izateko; eta horrexegatik eskaintzen dituzte itzulpen-memorian aurkitzen diren konkordantziak.

Kasu batzuetan oso erraz eskuratzen dira testuak: Maupassanten, Pirandelloren eta Machado de Assisen idazki gehienak daude eskuragarri Interneten, esate baterako. Horien corpusak egiteak ez du lan handirik eskatzen. Beste batzuetan ez da hain erraza izaten, eta eskaneatze-saio luzeak egin behar izaten dira testu multzo fidagarri samar bat edukitzeko.

Baliabide informatiko aski daude, merkeak edo doakoak, corpus horiez bizkor eta arin baliatu ahal izateko, bai Mac-erako, bai Windowserako bai Linuxerako. Buruz aipatuz: Conc, Concordance, WordSmith, Microconcord, FreeTextBrowser, Monoconc, Paraconc, Analysis, AntConc, Corpus Presenter eta abar. Zuzenean konkordantziak ateratzeko baliabideak ez diren arren, datu-baseak erabiltzeko sistemak ere baliagarriak eta bizkorrak izaten dira; badaude, adibidez, Sqlite-n oinarritutako baliabideak (Sqlite doakoa da), oso bizkorrak direnak, edo AskSam, adibidez. Testu soil handiak erabil ditzaketen programak ere erabil daitezke honetarako: Ultraedit (Windows) eta TextWangler (Mac) bururatzen zaizkit, bigarrena behintzat doakoa). Beste era bateko baliabide bat, baina honetarako erabil daitekeena, eta doakoa, Inforapid da. Nahi izanez gero Wordfast bera ere erabil daiteke konkordantziak ateratzeko, tranpatxo bat eginez: egindako itzulpenaren konkor-

dantziak ateratzen dituen bezala, itzulpena hutsik duten memoriak osatuz gero, jatorrizko testuaren konkordantziak eskaintzeko programa bizkor samarra bihurtuko litzateke.

Maupassanten *Fantasiak ipuinak* itzultzeko, adibidez —itzulpen bat egiteko testu corpusak erabili nituen lehendabiziko aldia aipatzeagatik—, FreeTextBrowser erabili nuen, milioika orrialdeko testuak Mac xahar batean oso bizkor erabiltzen zituen eta testu horietako konkordantziak eta hurbiltasunezko gertaerak aise eta bizkor eskaintzen zituen doako baliabide harrigarri bat. Benetan esan behar dut asko erraztu zidala itzulpena, Maupassanten hiztegiari buruz irakurrita nituen hainbat gauza gezurtatu zizkidala eta Maupassanten idazteko moduari buruz gauza asko argitu zizkidala, orobat.

Nolanahi ere, bada beste corpus zabal bat, denok eskura duguna: Internet. Eskura ditugun hiztegietan begiratu, ahal diren azterketa guztiak egin, eta denak huts egiten duenean, Internetera jotzen dugu (“dugu” diot, zeren gehienok egiten dugula iruditzen baitzait). Eta horrek ere huts egiten du zenbait kasutan: Bufalinok, adibidez, asko jokatzen du hizkuntzarekin eta kontzeptuekin (ezaguna da Bufalinoren oximoron-zaleatasuna, adibidez), hizkuntza-erregistroekin, hiztegi oparotasunarekin, erabiltzen dituen erregistroen bitxitasunarekin; gertatu izan zait izen+adjektibo bat Interneten bilatu eta bat bera ere ez aurkitzea, edo hitz jakin bat eskura ditudan hiztegi guztietan begiratu eta ez aurkitzea, eta Interneten ere erreferentzia banaka batzuk baizik ez egotea.

c. Euskarazko ereduak bilatu

Aspalditik ohitura dut, literatura-itzulpenen bat egin behar dudanean —bestela ere bai—, hartara ongi egokituko den euskarazko literatura klasikoko testuren batzuk irakurri eta lantzeko. Egia esateko, era horretako testuak lantzeko arrazoi nagusia ez da izaten euskal literatura klasikoan une horretan egin behar dudana itzulpenarako prosa-eredu bat bilatu nahia. Askotan, izan ere, ez da batere erraza izaten baldintza horiek betetzen dituen testuren bat aurkitzea, haren imitazioa egiteko-edo. Beste era bateko gogoetek eramaten naute horretara: hizkuntza batetik bestera itzultzen jarduteak arrisku handia du, nire iritzian, itzultzaileak bere hizkuntzan duen konpetentzia bihurrikatzeko; arrisku horretatik ihes egiteko, itzultzaileari mesede handia egiten dio, nik uste, halako hizkuntza-asesiko ariketa gisako batzuk egiteak. Mila bider salatu izan zaio itzulpenari erdarakada-iturri izatea (edo “ezagun du gaztelaniaz pentsatzen duela” hura), eta egia da itzultzaileak duela, inork izatekotan, arrisku hori. Arrisku horri ihes egiteko, beraz, euskal literatura klasikoko zenbait pasartetan oinarritutako saio berezi batzuk diseinatuta ditut eta egiten ditut aldian behin, hizkuntzazko aszesi hori egiteko, neure “etorria” azkartzeko; eredu egoki samarrak iruditzen zaizkidan batzuk hartu eta haiekin ariketa metodologiko batzuk egiten ditut: zatiak buruz ikasi, esaldien ordena itzulikatu eta hizkuntza-ekonomiazko esperimenduak egin. Maupassant itzultzeko, Agirre Asteasukoa eta Gerriko erabili nituen. Bufalino itzultzeko, Gerriko, Iztueta, Bago-Agirre eta Marzeli-

no Soroaren pasarte batzuk erabili nituen, besteren artean. Horrek laguntzen didan ala ez, ezin dut ziur esan; baina baietz sinetsi nahi nuke.

Gaur egun, zorionez, oso aukera zabalak dugu euskal klasikoak aurkitzeko: www.armiarma.com.

d. Hiztegi bilaketa

Hiztegien gaiak ez du sekreturik: ahal diren guztiak eduki behar dira, eta ahalik eta bizkorren kontsultatzeko moduan. Zenbat eta gehiago eduki, zenbat eta fidagarriagoak izan, zenbat eta kontsulta-sistema bizkorrago erabili, orduan eta gehiago begiratzen dira. Ondorioa ez da izaten itzulpena egiteko denbora gehiago behar izatea, hiztegiak gehiago arakatzea baizik.

Italieratik, portugesez, frantsesez euskararako hiztegi asko ez ditugunez, hizkuntza horietatik gaztelaniarako hiztegiez baliatu behar izaten dugu askotan. Eta oso maiz gertatzen zait, orobat, gaztelaniazko sinonimoetan ere begiratu beharra, gero sinonimoen euskarazko ordainak aurkitzeko.

Gehien erabili ditudanak aipatuko ditut:

Italieratik itzultzeko Amador, Laura Tam, De Mauro, Zanichelli, Zingarelli, Treccani, Devoto-Oliren hiztegiak erabili ditut; Interneteko Sinonimi master ere bai. Kasu honetan bereziki, ikuspegi historikoa oso kontuan eduki behar nuenez (Bufalino-ren eleberriaren istorioa Napoliko borbondarren erreinaldiaren garaian kokatzen baita), oso lagungarriak izan ditut Zanichellik argitaratutako Tommaseo-Bellini hiztegia eta Accademia della Crusca Lessicografia della Crusca in rete (Interneten).

Frantsesetik, P. Xarritonen hiztegi-az gainez, Larouse, Le Petit Robert, Le Grand Robert eta Littré.

Portugesetik Michaelis, Dicionário Aurélio-Século XXI da Língua Portuguesa, Dicionário eletrônico Houaiss.

Gaztelaniatik euskarara I. Sarasolaren *Zehazki* eta *Arauemailea*, Elhuyarrena. Euskaraz *Orotariko Euskal Hiztegia*; orain, hala ere, Interneten argitaratu delarik, eta azalpenak indexatuta dituelarik, azalpenen barruan ere egin daitezke bilaketak —geldi samar bada ere—, eta askoz ere emankorra- goa izango dela uste dut.

Hiztegi hauetako batzuek badute alder- di historikoa ere, hitz bakoitzaren historia labur batekin. Zenbait kasutan interesgarria izaten da.

e. Beste itzulpenak: hexaplak

San Jeronimo Origenesen *Hexaplez* baliatu zen Bibliako Testamentu Zahar- ren itzulpena egiteko. Origenesek Biblia- ren hebreerazko testua sei zutabetan paratu zuen, testuaren exegesia egiteko: lehenen- goan hebreerazko testua hebreeraz kopiatu zuen, bigarrenean hebreerazko testua letra grekotara bihurtua, hirugarrenean Aquila- ren itzulpena; laugarrenean Simakorena, bosgarrenean Origenesek LXXen bertsiotik egindako itzulpena, eta seigarrenean Teo- dozionena. Hala San Jeronimok baliabide ezin hobea zuen itzultzerakoan testuen exe- gesia egiteko.

Umberto Ecol *Decir casi lo mismo* libu- ruan esperientzia bera edo antzekoa aipa- tzen du, bere testuen itzultzaileak elkarre- kin lan egiten jarriz. Günter Grassek bere

testuen itzultzaileen arteko bilerak egiten omen ditu.

Ni ere, poliki-poliki hexapla-sistema era- biltzen hasi naiz, *hexa* izateraino inoiz iritsi ez banaiz ere. Eman dezagun *tetrapla*-raino iritsi naizela.

Itzultzaileak badaki esaldi bakoitza itzul- tzeke erabaki sail luze bat hartu behar iza- ten dela, esaldi bakoitzak dituen edo izan litzakeen katramilak askatzeko, horretarako irizpide sail batean oinarriturik. Itzulpenean ez dira agertzen itzultzaileak azken erabakia hartu aurretik buruan erabili dituen beste aukera guztiak, horixe esan nahi baitu, izan ere, aukeratzeak: aukera batzuk ontzat eman eta besteak baztertzea. Itzultitako esaldi bakoitza aztertuz, ez da zaila izaten itzultzai- leak izan dituen burubideei buruzko hipo- tesiak egitea: zer aukera zituen eta ez dituen ontzat eman. Hipotesi horiek egiteko are oinarri hobea izaten da esaldi edo paragrafo beraren itzulpen bat baino gehiago —hiz- kuntza berera edo hizkuntza desberdineta- ra— aztertzen baldin bada.

Hau argitzeko adibide gisa, Machado de Assisen *Dom Casmurro*ren lehenengo kapi- tuluko lehenengo paragrafoa ipiniko dut, lan hori izan baita Literatura Unibertsala bilduman argitaratu dudana, eta adi- bideak hurbilen dauzkadana.

Jatorrizkoa:

Uma noite destas, vindo da cidade para o Engenho Novo, encontrei num trem da Central um rapaz aqui do bairro, que eu conheço de vista e de chapéu. Cumprimen- tou-me, sentou-se ao pé de mim, falou da lua e dos ministros, e acabou recitando-me versos. A viagem era curta, e os versos pode ser que não fossem inteiramente maus.

Sucedeu, porém, que, como eu estava cansado, fechei os olhos três ou quatro vezes; tanto bastou para que ele interrompesse a leitura e metesse os versos no bolso.

Gaztelania (*Don Casmurro*. Itzulpena: Pablo del Barco):

Una noche de estas, viniendo de la ciudad al Engenho Novo encontré en el tren de la Central a un muchacho de aquí del barrio, al que conozco de vista y de sombrero. Me saludó, se sentó a mi lado, habló de la luna y de los ministros, y acabó recitándome versos. El viaje era corto y puede que los versos no fueran del todo malos, Ocurrió, sin embargo que, como estaba cansado, cerré los ojos tres o cuatro veces; fue suficiente para que él interrumpiera la lectura y pusiera los versos en el bolso.

Italiera (*Dom Casmurro*. Itzulpena: Gianluca Manzi e Léa Nachbin):

Una sera, tornando dal centro verso Engenho Novo, incontrai sul treno della Central un geiovane del quartiere, che conosco appena di vista e, come dire, di capello. Mi salutò, si sedette vicino a me, parlò della luna e dei politici, e finì col recitarmi poesia. Il tragitto era breve, e forse i versi non erano del tutto cattivi. Acadde, però, che, essendo stanco, chiusi gli occhi tre o quattro volte; questo bastò perché egli interrompese la lettura e si rrimettesse i versi in tasca.

Frantsesa (*Dom Casmurro et les yeux de ressac*. Itzulpena: Anne-Marie Quint):

Un de ces derniers soirs, comme je revenais de la ville à Engenho Novo, je rencontrai, dans le train qui part de la Gare Centrale, un jeune homme de mon quartier, que

je connais de vue et qui ôte son chapeau quand il me croise. Il me salua, s'assit auprès de moi, me parla de la lune et des ministres, et finit par me réciter des vers. Le voyage était bref, et peut-être les vers n'étaient-ils pas tout à fait mauvais. Néanmoins, comme j'étais fatigué, il m'arriva de fermer les yeux trois ou quatre fois ; il n'en fallut pas plus pour qu'il interrompît sa lecture et rentrât ses vers dans sa poche.

Euskara:

Gauotako batean, hiritik Engenho Novora nentorrela, ikustez eta kapela-agurrez ezagutzen nuen hemengo, auzoko mutil bat topatu nuen Zentraleko tren batean. Agurtu ninduen, ondoan eseri zitzaidan, ilargiaz eta ministroez hitz egin zuen, eta bertsoak errezitatzen hasi zitzaidan azkenean. Bidaia laburra zen, eta baliteke bertsoak guztiz txarrak ez izatea ere. Baina, nekatuta bainengoan, hiruzpalau aldiz begiak itxi zitzaizkidan, nonbait; horixe aski izan zen mutil hark irakurketa eten eta bertsoak poltsan sar zitzan.

Esaldi zatiak banan-banan aztertzen badira, berehalaxe ikusten dira zenbait arazo eta erabaki edo irtenbide desberdin itzulpen horien artean:

– Jatorrizkoaren hasiera, *Uma noite destas*, esaldiaren hasieran dago itzulpen guztietan, baina italierazko itzulpenean *destas* ez da zehazten. Frantseseko testuak *derniers* informazio-gehigarria txertatu du. Eztabaida daiteke erabaki horiek pertinenteak diren ala ez, itzulpenak jatorrizkoan garrantzia duen ezer aldatzen duten ala ez. Baina aldaketa begi-bistan dago.

– *vindo da cidade* pasarteari dagokionez, italierazko itzulpenean *dal centro* jartzen du. Engenho Novo “um bairro de classe média e média-baixa, da zona norte da cidade do Rio de Janeiro” da gaur egun (Wikipedia). Eleberria kokatzen den garaian arrabaletan zegoen. Eta badu zentzua *centro* itzultzeak, *città* itzultzeak informazio hori zehazten ez badu.

– *encontrar* aditzak “topo egin” du lehenengo adiera, gaztelaniazko testuan agertzen den *encontrék* ez bezala.

– *trem da Central* arazorik gabe itzuli da testu guztietan, frantsesean salbu, hartan, gero itzulpen osoan zehar bezala, zehaztapenak egiteko joera nabari baita: *dans le train qui part de la Gare Centrale*. Jorge Coli idazleak hone-lagaldetzen du, ordea, *O Que é Arte* liburuan: “Todos os leitores brasileiros —ou mesmo estrangeiros, caso o livro seja traduzido— saberão o que é o Engenho Novo? Trem da Central, que hoje associamos a um meio de transporte proletário, insuficiente e mal conservado, terá a mesma significação na frase?”. Argi dago zati horrek ez dakartzala oroitzapen berak behinola-ko eta gaurko irakurlearentzat, eta are gutxiago itzulpenaren irakurlearentzat.

– *um rapaz aqui do bairro* pasarteak, lehen ikusi batean inolako arazorik eman beharko ez balu ere, jatorrizko testuan ageri den aqui zehaztapena gaztelaniazko itzultzaileak baizik ez du ematen bere horretan. Frantses itzultzaileak *mon quartier* zehazten du.

Italierazko itzulpenean *del quartiere* jartzen du, mugaturik, beraz, nire itzulpenean bezalaxe.

– *que eu conheço de vista e de chapéu* da esaldi honetan arazo gehien ematen duen pasartea. *Conhecer de chapéu* esapidea ez da agertzen hiztegi-tan. Interneten ere gutxi agertzen da. Adierazten duen irudia aise jasotzen da, baina euskaraz ere ez dugu horren gisako esapiderik. Hala, pasarte honen itzulpenean ageri dira aukerarik zabalenak. Gaztelaniaz *conozco de vista y de sombrero* dio; ez zait iruditzen jatorrizko testuak aditzera ematen duen keinua gogorarazten duenik. Italiar itzulpenak *appena* bat zehaztu ondoren, irakurleari gogoratzeko gonbita bat egiten dio, *come dire*, eta hala *che conosco appena di vista e, come dire, di capello* itzultzen du. Frantses itzultzaileak azalpen deskriptiboagoa ematen du: *que je connais de vue et qui ôte son chapeau quand il me croise*. Ez du esaten protagonistak ere kapela jasotzen zuen ala ez. Euskal itzultzaileak... ahal duena egiten du, ohi bezala; baina, hori bai, aurrekoek hartu dituzten erabakiei buruz gogoeta labur bat egin ondoren. Nolanahi ere, ekar daiteke hona lehen aipatu dudan Jorge Coli idazleak honi buruz egiten duen gogoeta: “Além disso, quantos de nós compreendemos sem confusão o que é o “conhecer de chapéu”, isto é, a relação cerimoniosa, mas cordial, entre duas pessoas, traduzida pelo gesto cortês de saudação que consiste em

soerguer ligeiramente o chapéu, hoje, que homens não usam chapéu?”

Eta hori lehendabiziko esaldia hartuta. Esaldi bakoitzaren azterketak itzulpenaren teoria osoa berrikusteko balioko luke. Mila gogoeta egin daitezke eta egiten dira esaldi bakoitza itzultzerakoan, ezin daitezke denak jaso.

Aise izan liteke tentazioa itzulpen haue-tan hizkuntza bakoitzak dituen baliabideen arteko jokia argitzen dela: gaztelaniak honela jokutzen du, italiarak horrela, euskarak beste era honetan... Askotan entzuten dira horrelakoak. Hobeto zehaztu behar litzateke; nire iritzian diskurtsoa une jakin batera arte antolatu den moduak baldintzatzen du, hizkuntzak baldintzatzen duenez gainera. Har daiteke aipatu dudana paragrafoko azkeneko esaldia, esan dudana hobeto ulertzeko.

– Jatorrizko testuan tanto *bastou para que ele interrompesse a leitura e metesse os versos no bolso* dakarren lekuan, euskarazkoan horixe *aski izan zen mutil hark irakurketa eten eta bertsoak poltsan sar zitzaiz*an itzultzen da. Gainerako itzulpenetan *él, eggli, il* jartzen dute.

Bistan da izenordainetan generorik ez duen hizkuntza batean anafora-kateak eman behar duen zehaztapen mailara iristeko irtenbide bat dela *mutil hark* zehaztapena. *Hark* edo *berak* lausoegi iruditzen zitzaidan, aurreko esaldiko subjektuarekin bat ez zetorrelarik batez ere. Bestela, *horixe aski izan zuen* itzuliko nukeen, agian.

Pasarte baten itzulpena modu batean egiteko arrazoia hizkuntzaren egiturak har-

tara behartzen gaituelako hori ez da erabateko egia izaten, alegia. Testua eraikitzean hartuz joan diren erabakiek ere hizkuntzak adina hertsatzen gaituzte.

Bistan dago, aurreko pasarte hauek ikusita, ez dagoela literatura-lan baten azterketa kritikorik, itzulpen desberdinen era honetako esaldiz esaldikako alderaketak eskain dezakeen bezalako informazioa eskainiko duenik, itzulpeneko pertinentea izango den horrelako informazioa eskainiko duenik, bederen.

Badirudi, lehen ikusian, prozedura honek ikaragarri luzatu behar lukeela itzulpen-lana, testu batetik bestera bila eta azterka ibili behar horrek ez duela inoiz bukatu behar. Bi ohar egin behar dira, ordea.

Batetik, esaldi askok ez dute horrelako azterketarik eskatzen; ez dago esaldi guzti-guztiak aztertu beharrik; esaldi arazotsuak eta katramilatsuak aztertzen dira batez ere.

Eta, bestetik, prozedura horrek oinarrian eskatzen dituen pauso asko automatizatu egin daitezke. Nik aspalditik itzulpen-memoriez baliatzeko sistemaren bat erabiliz egiten ditut itzulpen guztiak (labur-laburak salbu), Wordfast erabiliz ia beti, baita literatura-itzulpenak ere. Alde on asko ikusten dizkiot jokaera horri, esaldi bat bera ere ez ahaztea, besteren artean.

Horretarako, literatura-lanen bat itzul-tzeko batez ere, jatorrizko testua eskaneatu egiten dut lehendabiziko gauza, eta harekin batera eskura ditudan gainerako itzulpenak ere bai.

Behin testu horiek zuzendu eta MS Word dokumentuetan edukiz gero, aise antola daiteke lana, Wordfasten makro batzuk aldatuz edo osatuz (*Next Segment*

makroa osatuz batez ere) Worden berak egin dezan lan guztia: hurrengo itzulgaira joanez batera, beste itzulpenen dokumentuetara joan, hurrengo esaldia aukeratu, koloretatu (gero aise bereizteko) eta itzultzen ari garen dokumentura ekartzeko. Behar diren makroen azalpenak, ordea, leku gehiegitxo hartuko luke hemen.

Honela geratuko litzateke, beraz, gutxi gorabehera itzultzeko esaldia, Wordfastek ohi duen bezala:

Uma noite destas, vindo da cidade para o Engenho Novo, encontrei num trem da Central um rapaz aqui do bairro, que eu conheço de vista e de chapéu.

Gautokato batean, hiritik *Una noche de estas, viniendo de la ciudad al Engenho Novo encontré en el tren de la Central a un muchacho de aquí del barrio, al que conozco de vista y de sombrero. Una sera, tornando dal centro verso Engenho Novo, incontrai sul treno della Central un geiovane del quartiere, che conoscevo appena di vista e, come dire, di capello. Un de ces derniers soirs, comme je revenais de la ville à Engenho Novo, je rencontraí, dans le train qui part de la Gare Centrale, un jeune homme de mon quartier, que je connais de vue et qui ôte son chapeau quand il me croise.*

Azken buruan

Horixe da galdera: azken buruan, zer? Itzulpenak egiteko erabiltzen ditudan prozeduren ikuspegi arin bat eskaini ondoren, berriro hizpidea eman didan testura itzulita, Gesualdo Bufalinoren *Le menzogne della notte* eleberraren itzulpena itzulita,

erantzun gabe dago oraindik galdera: azken buruan zer? Ez baitute prozedurek justifikatzen itzulpena, itzulpenaren egokitasunak baizik.

Itzulpenak frustrazioa eragiten du beti, itzultzaileak ongi dakien bezala, itzultzaile delako inon den irakurlerik zorrotzeta, irakurketarik xeheena egiten duena (azken finean, jatorrizko testuaren irakurketari dagozkio nire itzulpen-prozeduran erabiltzen ditudan prozesu gehienak) eta hark dakielako beste inork baino hobeto zenbat galdu den, jatorrizko testutik testu itzulirako bidean, zenbat aldentzen den itzulpena jatorrizko testutik.

Gesualdo Bufalinoren *Le menzogne della notte* eleberraren itzulpena nire bizitzan itzuli behar izan dudana itzulpenik konplexuena eta zailenetako bat izan dela, aitortu beharra dut. Alde batetik, lehen ere esan bezala, Gesualdo Bufalinoren *Le menzogne della notte* eleberrak antolatzen duen intertestualitate zabalaren ordaina euskarara ekartzea ez zegoen nire esku, ez delako aski, gainera, idazleak berak intertestualitate hori sortu nahi izatea; irakurleak ere jarri egin behar du bere aldetik; intertestualitate hori gauzatu ahal izan dadin, erreferentziak hurbil aurkitzea da beste baldintza bat. Eta horretan amore eman beste erremediorik ez zait geratzen; ez dut esperantza handirik Bufalinok bere testuan jartzen dituen hainbat eta hainbat aipamen ezkutua euskarazko testuaren irakurleak atzemateko.

Ez nago seguru, ezta ere, Bufalinoren hizkuntza-jolasak ongi harrapatu ditudanik. Nire italierazko prestaera mugatua delako, batetik. Eta, bestetik, ohartu naizenetan ere, gauza asko sakrifikatu egin behar izan ditu-

dalako. Lexiko-jokoek euskaraz berdinek ez badute, ez dute. Bufalinoren lexikoaren eta zenbait sintaxi-jokoren arkaizismoa, hobeto eman ditudala uste (espero) dut.

Susmoa dut Bufalinok bere testuan egiten dituen hizkuntzazko joko eta jolas askok badutela beste eginkizun bat ere: irakurlea gidatzea, irakurlearen irakurketaren doinua eta konpasa markatzea: Crescendo, Diminuendo, Piano, Staccato, Amabile, Cantabile, Con moto, azkeneko Da caporaino iristeko (eleberria irakurri ondoren, berriro, beste ikuspegi batekin, hasieratik hasteko gonbitarekin). Behin Gasteizko Filologia Fakultatean itzulpen honi buruz hitz eginez esan nuen bezala: “Bufalinok nahita

gerazten du irakurlea, astiro joan dadin, gelditu dadin han eta hemen, sintaxi-bihurgune baten bueltan epiteto baten edertasunari begira gera dadin; haren itzulpenean jartzen sartu ditudan bihurgune eta aldapa guztiekin, ez al diot irakurleari kulata erreko, eta paisaiari begira gelditzera behartu ordez, kapota jaso eta motorretik kea nola ateratzen den begira, mekanikariaren zain geratzera behartuko? Beldur naiz”.

Nolanahi ere, kontsolabidea geratzen zait betiere: okerrago egongo litzateke itzulita ez balego... eta italiar irakasle batek esan zidan bezala, “lantegi” hitzari beste zentzu bat emanez: “Bufalino itzultzen? Lantegi ederra hartu duzu”.

Le menzogne della notte: La traducción como taller y quehacer

Partiendo de la publicación de la traducción de *Le menzogne della notte* del escritor italiano Gesualdo Buffalino y de otras traducciones literarias recientes, el traductor y autor del artículo expone su metodología de trabajo, su “taller” de trabajo, y reflexiona sobre él. Es posible que el núcleo básico del proceso por el que, partiendo del triángulo “texto original – traductor – folio en blanco”, éste se va llenando de un texto que pretende ser equivalente al original en la lengua de llegada, es decir, el núcleo de decisiones del traductor, no haya cambiado substancialmente; pero es innegable que todo lo que rodea a esa toma de decisiones ha cambiado radicalmente estos últimos años, tanto por la abundancia y accesibilidad de la información, documentación y material consultable (Internet, diccionarios, publicaciones), como por las nuevas herramientas que han surgido en el ámbito de la traducción (programas para la elaboración de corpus lingüísticos generales o *ad hoc*, sistemas de consulta). Además de exponer los medios técnicos que el traductor utiliza en su trabajo, el autor destaca especialmente dos aspectos de su trabajo, que en realidad no son nada nuevos: la búsqueda de modelos lingüísticos dentro de la tradición literaria en euskara, en los que inspirarse para su traducción; y la utilización de otras traducciones del original a otras lenguas (como ejemplo, propone las traducciones al francés, castellano e italiano, y la suya propia al euskara, del *Dom Casmurro* de J.M. Machado de Assis), puesto que constituyen, para quien está habituado a realizar análisis de texto tan meticulosos como los que está obligado a hacer el traductor, una guía detallada de las dificultades con las que probablemente se va a encontrar en su empeño. El autor propone, asimismo, una serie de macros que facilitan esta labor en el caso de que se utilice una herramienta de traducción como Wordfast.

Night's Lies: the translation workshop

Based on the publication of the translation of *Night's Lies* of the Italian author Gesualdo Buffalino and other recent literary translations, the translator and author of the article puts forward his work methodology, his “workshop”, and reflects on the latter. It is possible that the basic core of the process by means of which, based on the triangle “original text – translator – blank sheet of paper”, the latter is filled in with a text that intends to be equivalent to the original in the target language, in other words, the core of decisions of the translations should not change substantially; but it is undeniable that everything that surrounds this decision making has changed radically over the last years, due both to the abundance and accessibility of information, documentation and consultation material (the Internet, dictionaries, publications), as well as the new tools that have appeared in the translation field (programmes for the elaboration of general or ad hoc linguistic corpus, query systems). As well as displaying the technical resources that the translator uses for his work, the author specially points out two aspects of his work, which are not really new: the search for linguistic models within the literary tradition in Basque, to find inspiration for his translation; and the use of other translations of the original document to other languages (for examples, he proposes the translations to French, Spanish and Italian, and his own translation to Basque, of *Dom Casmurro* of J.M. Machado de Assis), since they constitute, for anyone used to carrying out such meticulous text analysis as those carried out by the translator, a detailed guide of the difficulties which he will probably come across during his work. Likewise, the author also proposes different macros that facilitate this task if the translation is carried out using a tool such as Wordfast.

Les mensonges de la nuit : la traduction comme atelier de travail

En partant de la publication de la traduction de l'œuvre *Le menzogne della notte* de l'écrivain italien Gesualdo Buffalino et d'autres traductions littéraires récentes, le traducteur et auteur de l'article expose sa méthodologie de travail, son « atelier » de travail, et en fait l'objet de sa réflexion. Il est possible que le noyau fondamental du processus par lequel, partant du triangle « texte original – traducteur – feuille blanche », la feuille se remplit d'un texte cherchant à être l'équivalent de l'original dans la langue cible, c'est-à-dire que le noyau de décisions du traducteur, n'ait pas changé en substance ; mais il est indéniable que tout ce qui entoure cette prise de décisions a changé ces dernières années, tant par l'effet de l'abondance et de l'accessibilité de l'information, des documents et du matériel à consulter (Internet, dictionnaires, publications) que par l'effet des nouveaux outils qui ont émergé dans le domaine de la traduction (logiciels d'élaboration de corpus linguistiques généraux ou *ad hoc*, systèmes de recherche). En plus d'exposer les moyens techniques utilisés par le traducteur dans son travail, l'auteur souligne deux aspects de sa tâche, qui n'ont en réalité rien de nouveau : la recherche de modèles linguistiques dans la tradition littéraire en euskara comme sources d'inspiration pour la traduction ; et l'utilisation d'autres traductions de l'original en d'autres langues (il propose ainsi les traductions française, espagnole et italienne, en plus de la sienne, en euskara, de l'œuvre *Dom Casmurro* de J. M. Machado de Assis), puisqu'elles constituent, pour ceux qui ont l'habitude de réaliser des analyses de texte aussi méticuleuses que doivent être celles du traducteur, un guide détaillé des difficultés qu'il va probablement rencontrer sur son chemin. L'auteur propose, de même, une série de macros facilitant ce travail dans le cas de l'utilisation d'un outil de traduction tel que Wordfast.